

.....//.....

Bilera mota: Ezohiko Udal Osoko Bilkura.

Data: 2015-10-29 (osteguna)

Ordua: Arratsaldeko 19:00etan..

Lekua: Udaletxeko Batzar Aretoan

Erreferentzia:E-15-09

Honen bitartez eta alkate jaunaren aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ezohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

Ezkio-Itsaso, 2015eko urriaren 27a
Idazkari-kontuhartzailea

EGUNEKO GAI ZERRENDA

- 1.- Hiri Antolaketarako Plan Orokorra espedientearen aurrerakina jendaurrean jartzea onartzea.
- 2.- 2016 urterako zerga eta tasen prezioak eguneratzeko espedientea hasierako izaeraz onartzea.
- 3.- Garbiketa zerbitzuaren lizitazioa arautuko duten Ekonomiko-Administratibo eta Tekniko pleguak onartzeko proposamena.
- 4.- Erregu/galderak.

.....//.....

0-E-15-09: EZOHICO UDAL OSOKO BILKURA

.....//.....

2015EKO URRIAREN 29KO EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

Ezkiio-Itsason, bi mila hamabosteko urriaren 29an

Egun honetako arratsaldeko 19:00ak direnean, Udaletxeko Areto Nagusian Udal Plenoa biltzen da, Garikoitz Aiesta Etxaniz alkatearen lehendakaritzapean, lehenengo deialdian eta alde zuzenetik eta behar den eran Udalkide guztiei igorri zaien eguneko Aztergai Zerrendaren arabera.

Batzarreratzen dira ondoko Udalkide hauek:

- Jose Ignacio Etxezarreta Estala (EIK).
- Ander Unzurrunzaga Idiakez (EIK).
- Gorka Sasieta Barrenetxea (EIK).
- Mikel Igartua Anduaga (EIK).
- Maria Luisa Pildain Cenitagoya (EIK).
- Jose Maria Barrenetxea Aldanondo (EIK).

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria desenkusatzuz:

- Inor ez.

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria ez dute desenkusatzuz:

- Inor ez.

Idazkari, Udaleko idazkari-kontuhartzaileak egiten du:

- Martin Iparragirre Mujika.

.....//.....

.....//.....

Segidan eta Presidentearen baimenez, nik, idazkari honek, Batzarra egin daitekeela adierazten dut, zeren Udalari dagozkion eta osatzen duten Udalkide gehienak bertaratu baitira, horrela apirilaren 2ko 7/1.985 Legearen 46-2 artikuluan eta azaroak 28ko 2.568/1.986 Erret Dekretuz onarturiko Toki Erakundearen Antolakuntza, Iharduera eta Legezko Jaurbidearen Erregelamenduaren 90.1 artikuluan xedatzen denarekin bat etorritz.

.....//.....

.....//.....

LEHEN PUNTUA:
HIRI ANTOLAKETARAKO PLAN OROKORRA ESPEDIENTEAREN
AURRERAKINA JENDAURREAN JARTZEA.

IKUSIRIK:

“Ezkio-Itsaso Hiria Antolatzeko Aurrerapen” deritzon espedientea dagoeneko osaturik dagoela.

Alkate jaunak espedientearen ezaugarri nagusienak aipatu dituela.

Espedientea osatzen dutela Gaizka Perosterena Arregi arkitektoak eta Patxi de Assas abokatuak idatzitako aurrerapen dokumentuak, eta Ekolur enpresak idatzitako Ingurumen Ebaluazio Estrategiko dokumentuak.

KONTUAN HARTUTA:

Lurzoari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 90.3 artikuluan xedatzen dela espedientea izapidetzeko prozedura.

Hori dena kontuan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez, honako hau,

ERABAKI DU:

LEHENA:

Espedientea jendaurrean jartzea bi hilabetez azkeneko argitalpena egiten den hurrengo egunetik kontatzen hasita, eta iragarkia Udaletxeko iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta lurraldean hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratzea, baita Udal mugakideetara bidaltzea, eta azkenik espedientea Ezkio-Itsaso Udaleko ezkio-itsaso.eus web orrian

.....//.....

.....//.....

argitaratzea, hori dena jendaurreko epe horretan iradokizunak eta alternatibak aurkeztu ahal izateko.

BIGARRENA:

Herri Batzarra egitea (zehaztuko da data) espedientearen aurkezpena egiteko.

BIGARREN PUNTUA:

**2016 URTERAKO ZERGA ETA TASEN PREZIOAK
EGUNERATZEKO ESPEDIENTEA HASIERAKO IZAERAZ
ONARTZEA.**

IKUSIRIK:

2016eko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean sartzeko, Ordenantza Fiskalen aldaketaren gaiari dagokionez, honako proposamen hau egiten dela:

- Orokorrean igoerarik ez aplikatzea.
- Zabor bilketaren zerbitzuari dagokionez (alkateak gai honi buruzko informazioa zabala eman du eta argi utzi du oraindik ez daudela datu zehatzak eta ziur asko aurreikuspenak aldatu egingo direla).
- Landabideen erabilerari buruzko gaia aztertzen ari dela hormigonatu gabeko bideei aplikatzeko.

KONTUAN HARTUTA:

2016 urterako bakarrik zabor bilketaren zerbitzuaren tasa eguneratzea proposatuko dela momentu honetan dauden datuen arabera %8ko igoera aplikatuz, zerbitzuaren kostuaren gehikuntza finantzatzeko.

.....//.....

.....//.....

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honako hau,

ERABAKI DU:

LEHENA:

2016. ekitaldirako Ordenantza Fiskalen aldaketarako espedienteari, behin-behineko onarpena ematea, zabor bilketaren zerbitzuan %8ko igoera aurreikusiz, igoera hau gaiaren eboluzioari baldintzatuta geratuz, eta halaber Landabideen erabilerari buruzko gaia aztertzen jarraitzea hormigonatu gabeko bideei ere aplikatzeko.

BIGARRENA:

Espedientea jendaurreko erakustaldian jartzea, adieraziz iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, 11/1989 Foru Arauak 17. artikuluan zerrendatutakoek, 30 laneguneko epea izango dutela, egokiak iruditzen zaizkien alegazio edo erreklamazioak egiteko.

Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, espediente hau behin-betiko izaeraz onartuta geratuko da.

HIRUGARREN PUNTUA :

GARBIKETA ZERBITZUAREN LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN EKONOMIKO ADMINISTRATIBO ETA TEKNIKO PLEGUAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.

IKUSIRIK :

Lehiaketa irekia bitartez Ezkio-Itsasoko Udal eraikin eta lokalen garbiketa zerbitzuak kontratatzeko prozedura martxan jarri nahi dela.

Dagoeneko prestatuta daudela, Ekonomiko-Administratibo eta Tekniko Pleguak.

.....//.....

.....//.....

KONTUAN HARTUTA :

Prestatutako pleguek, besteak beste, ezaugarri hauek dituztela :

- Kontratuaren xedea : Ezkio-Itsasoko Udal Eraikin eta Lokalen Garbiketa zerbitzuak.
- Kontratuaren oinarrizko prezioa : urteko 32.094,34 euro (BEZa aparte).
- Eskaintzak aurkezteko epea : 15 egun naturalak, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Hori dena kontuan hartuta, gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honako hau,

ERABAKI DU :

BAKARRA :

Aurkeztutako Ekonomiko-Administratibo eta Tekniko Pleguak onartzea, eta lizitazio prozedura abian jartzea.

LAUGARREN PUNTUA. Erregu eta galderak.

Ez dago erregu edo galderarik.

Beterik deialdiaren helburua, 19:20ak direnean, eta aztertzeke gai gehiagorik ez dagoenez, Udal Osoko Bilkura bukatutzat ematen da. Nik, idazkari bezala, akta hau idazten dut.

Ezkio-Itsaso, 2015eko urriaren 29a

O.E.
ALKATEA

IDAZKARIA

.....//.....